



## Carlos Sanchiz Sarriegi izendatu dute, 2020ko 'Hernaniar Bikaina'

Aurreko igandean, Xalaparta elkarteko kideak bildu eta Carlos Sanchiz Sarriegi izendatu zuten 2020ko 'Hernaniar Bikaina', hamaika arrazoi direla medio.

**HERNANI** HERNANIAR BIKAINA

Aurreko igandean, Xalaparta elkarteko kideak bildu ziren, 2020ko Hernaniar Bikaina izendatzeko, eta Carlos Sanchiz hautatu zuten, «hainbat fazeta azpimarragarri baitauzka».

**Carlos Sanchizen ibilbidea, Hernanin**

Sanchiz, hainbat urte ibili zen kirolean murgildurik. Hasieran futboleko jolasten, Atsegindegin egiten zen txapelketan hainbat sari irabazi zituen Biteriko taldearekin. Aurrerago, talde hau utzi eta CD Hernaniko hondartzako futbolera pasa zen, Kontxako eta hiru hondartzetako txapelketak irabazita. Jokalaria izatetik, entrenatzaile izatera igaro zen, 1967tik 1973ra bitartean. Sei denboraldi hauetan, Gipuzkoako kopako finalista izan zen berak entrenatzen zuen taldea.

**Carlos Sanchiz, «beti izan da Hernaniko aurrekuaren ikono garrantzitsuenetako bat, 4.000 ume baino gehiago prestatu zituen, herritarren aurrean aurreku dantzatzeko»**

**Eskerrak eman nahi izan dizkie Xalaparta Elkartekoek, «urte luzeetan egindako esfortzu eta lanagatik, eta Hernani, dantza eszenatokitara eramateagatik»**

dea. Urteak aurrera egin ahala, CD Hernaniko talde erregionala entrenatzen hasi zen Sanchiz, hauekin ere hainbat txapelketa eta liga irabaziz.

Futbolaz gain, «dantzari ederra zen Sanchiz », eta lehen aldiz, 8 urte zituela, Hernaniko dantza lehiaketa batean hartu zuen parte, eta urte horretan bertan Hendaian ere aritu zen. 1960 urtean, 13 urte zituela, dantza suetoaren Gipuzkoako txapeldun bilakatu zen, eta 1961ean berriz, Donostiako lehiaketa ere irabazi zuen.

27 urte zituela, hainbat lehiaketa eta txapelketetan parte hartu eta irabazi ondoren, dantzari izateari utzi zion. Baina ez ditu dantza eszenatokiak alde batera uzten, izan ere, dantzako epaile bilakatzen baita. «Euskal Herri mailan egiten ziren dantza suetoetako epaimahai garrantzitsuenetan jardun zuen».



Carlos Sanchiz Sarriegi izendatu dute, 2020ko Hernaniar Bikaina.

Esan daiteke, Euskal Herrietako eszenatoki guztiak pasa zituela Sanchizek, «Hernaniren izena eramanez, Hernani erreprezentatuz»; konkretuki 66 urte egin zituen dantzaren munduan.

**«Urte luzeetan egindako esfortzu eta lanagatik, eta Hernani, dantza eszenatokitara eramateagatik»**

**53 urtez, aurrekuaren aurrera eramaten**

Carlos Sanchiz, «beti izan da Hernaniko aurrekuaren ikono garrantzitsuenetako bat», eta 53 urte iraun zituen horretan buru-belarri, 1965etik 2018ra. San Joan jaietan hain garrantzitsua zen Aurreku txikiaren antola-

tzaile eta prestatzaile izan zen urte luzeetan. Garai haietan gainera 4000 ume baino gehiago prestatu zituen, plaza erdian, herritarren aurrean, San Joanetako aurreku ezaguna dantzatzeko. 2018 urtean, erretiroa hartu zuen, «eta gaur arte ez da gehiagorik egin».

**Merituengatik, «Hernaniar Bikaina»**

Ekintza mordoa egin ditu Sanchizek bere bizitzan zehar, eta asko Hernaniren izenean egin ditu. Hori horrela, Xalaparta Elkarteko kideek, 2020ko ekainean omenaldi bat egingo diote, Hernaniar Bikainari, kasu honetan, Carlos Sanchizi. «Urte luzeetan egindako esfortzu eta lanagatik, eta Hernani, dantza eszenatokitara eramateagatik». Xalaparta elkartekoek eskerrik beroenak eman nahi dizkiote, 2020ko «Hernaniar bikainari». **K**

## Bi batzorde, gaur

**ASTIGARRAGA** UDALA

Bi batzordetarako deia egin du Astigarragako udalak, gaurko. Lehena arratsaldeko 17:00etan izango da, Kultura, Euskara eta Jaiei buruzkoa. Eta arratsaldeko 18:00etan, Hezkuntza eta DBHren aldeko batzordea. Biak udaletxeko batzar aretoan izango dira.

## Talde bilera gaur, Ereñotzun

**EREÑOTZU** OLAK ELKARTEA

Ereñotzuko Olak auzo elkar-teak hamabostero bilduko den talde bat osatu du, urte osoan zehar kultur ekintzak eta jaiak antolatzeko. Taldea auzotarrei irekia da eta ahalik eta zabalena izatea du helburu. Hori dela eta, gaur bilera egongo da, 18:15etan, auzo udalean. «Kultur ekintzak antolatzeko gogoia eta ideiak dituzten auzotarrei dei egiten zaie».

## Hileroko zita, bihar

**HERNANI** ZILEGI ESKOLA

Hilero moduan, bihar, arratsaldeko 17:30etan, hezkuntza eskola izango da. Saioaren gaia, *motxiladun haurrak, zaintza eta arreta espezifikoak* izango da. Hezkuntzan adituak diren Esti Amenabarro eta Marian Bilbatuak emango dituzte azalpenak. Ohiko moduan, zaintza zerbitzua eskainiko da.

## Hiru sari zozketan

**HERNANI** GIDABAIMENA EUSKARAZ

Buruntzaldeko autoeskoletan, gidabaimena euskeraz atera dutenen artean zozketa egingo da. 9 autoeskola izan dira parte hartu dutenak, eta hauen artean daude Hernani eta Astigarragakoak. Hernanin 3 sari zozketatuko dira, eta Astigarragan berriz bat. Etzi egingo da zozketa, Biterin, eguerdiko 13:30etan. Bertan izango dira, autoeskoletako ordezkariak eta udaleko euskara zinegotziak.

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?**

**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**

www.funerariaorbegozo.com

- \* Zerbitzu partikularrik eta aseguru txarrekin
- \* Beilatoekiak
- \* Erreusketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

**C**

**GARBINE SANTÍN**

LEAPANDEGIA

943 55 56 65 - 649 53 01 49

@peluqueria.garbine.santin

Facebook Peluqueria Garbine Santin

altzueta

HERNANI

Osinaga, 7. Hernani

**943 55 15 02**



**EGURALDIA**

**GAUR**  
Gaur goizaldean zirimiria egin dezake, baina goizak aurrera egin ahala, atertzera egingo du. Hodeitza ere sareten hasiko da eguerdi inguruan eta arratsaldean ostarteak irekiko dira. **Min.8° / Max.14°**

**BIHAR**

Bihar, egunaren lehenengo partean haizea espero da, epela iznago da eta ostarteak egongo dira. Arratsaldean hodeiak ugaritzen joango dira, eta tenperatura maximoak apur bat igoroko dira. **Min.9° /**

**ARGITARATZAILEA**

**DOBERA**  
EUSKARA ELKARTEA

**LAGUNTZAILEAK**

**Hernaniko Udala**

**Argitarrakiko Udala**

**Erretzuko Auzo Urtia**

**GOZUEKANO UDALA**

**ARANOKO UDALA**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gaez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

**PEFC**

## Beterri Saretuzen bigarren jardunaldia Hernanin, bihar

Beterri eskualdean parte-hartzean oinarritutako enpresen ekosistema sustatzeko, bigarren jardunaldia egingo dute, Hernanin bihar.

**HERNANI** BETERRI SARETUZ

lekua.

Beterri Saretuz programak aurrera jarraitzen du eta bigarren jardunaldia antolatuta dute, «Beterri-Buruntza eskualdean parte hartzean oinarritutako enpresa ekosistema aitzindari baten oinarriak jartzeko asmoz». Hernanin izango da bigarren jardunaldi hau, bihar goizeko 9:30etan hasita, Iturola Elkarlan Sorgunean izango du

**Oinarri eta helburuak**

Ekonomia eraldatzailearen oinarrietako bat parte hartzea da, eta ekosistema hori sustatzeko, «enpresek ez ezik, hezkuntza eragileek, ekintzaile sozialek eta administrazioak ere badute zeregina». Hori horrela, osteguneko jardunaldian «horiek guztiak banatuko dira, lan-mahaien bidez bakoitzak bere sektorean

egin dezakeena aztertzeko».

Programa honek, Gipuzkoako Aldundiaren eta Beterri-Buruntza Udalak erakundearen laguntza dauka eta sektoreen «beharren arabera eskualdeko gida edo lan-tresna bat osatu nahi da». Eta gida hau aurkezteko, hirugarren jardunaldi bat ere egingo dute.

Hala ere, bigarren jardunaldia bihar izango da, Hernaniko Iturolan, goizeko 9:30etan hasita. Enpresek eta eragileek izena eman dezakete, formularioa betez: <https://labur.eus/bskQP>. Informazio gehiagorako, deitu 688 849 540 telefonora. **K**

## «Zaldibar argitu, erraustegia gelditu» mobilizaziorako deia luzatu dute

Gaur arratsaldeko 19:00etan, mobilizaziorako deia luzatu dute Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak eta Hernaniko Zero Zaborrek.

**HERNANI** MOBILIZAZIOA

Gaur arratsaldeko 19:00etan jarri dute zita Plaza Berrin, Erraustegiaren aurkako mobilizazio baterako deia eginez, «Zaldibar argitu, erraustegia gelditu» lelopean. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak eta Hernani Zero Zaborrek deitu du mobilizazio honetara. «Herritar guztiak deitzen ditugu kalera».

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak adierazi du, guztiz bat egiten duela «langileak, osasuna eta erantzukizunak»

esaerarekin. Lehenetsuna, desagertuta dauden bi langileak erreskatatzea da, eta hortik aurrera, «inguruko herritarren osasuna bermatzea, eta orain arte ikusi dugun kudeaketa negargarriagatik erantzukizunak argitzea».

**Zaldibarreko eskandalua**

Zaldibarren hondakin arriskurik ez omen zegoen, eta «bi langile desagerrarazi dituen eskandaluak azalarazi du, zer nolako larritasuna duen etxe ondoan erraustegia inposatu nahi iza-

teak».

Inguruko herritan ere egingo dira mobilizazioak, hala nola, Donostian, udaletxe aurrean; Usurbilen udaletxe aurrean; Zubietan, Alamandegin; Andoainen udaletxe aurrean; Oiar-tzunen, udaletxe aurrean eta Iruran, udaletxe aurrean.

Beraz, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, eta Hernaniko Zero Zaborrek, mobilizazioan parte hartzeko deia luzatu dute, «hondakin kudeaketa osasuntsu baten alde, atera kalera zerbait gertatu aurretik». Esan bezala, Hernanin gaur arratsaldeko 19:00etan, Plaza Berrin. **K**



Lizeaga anaia, 'Memorial Soroa' txapelketako finalerako txartela lortu dute.

## 'Memorial Soroa' txapelketara, Lizeaga anaia

**ASTIGARRAGA** PELOTA

Lizeaga anaiek, Tolosako hain ezaguna den 'Memorial Soroa' txapelketarako finalerako txartela lortu dute. Aurreko asteburuan jokaturako finalurrekoetan garaile atera baitziren, Alonso eta Ugartemendia bikotea garaituta, 22-11ko puntuazioarekin amaituz. Finalurrekoa irabazteak bere fruituak eman ditu, eta Tolosako 'Memorial Soroa' txapelketa entzutetsuan, finalerako txartelak lortu dituzte.

## Stock Azoka bihar eta etzi, Plaza Berrin

Bihar eta etzi, Stock Azoka egongo da Plaza Berrin, goizean eta arratsaldean izango da aukera erosteko.

**HERNANI** STOCK AZOKA

Bihar eta etzi, Stock Azoka jarriko dute Plaza Berrin, Berriak merkatari eta ostalarien elkar-teak antolatuta.

Merkealdiak bukatuta, bilte-

gia hustu beharra daukate denek, denboraldi berriko produktuez hornitzeko. Eta horregatik, askotan, kostu preziotik behera ere saltzen dituzte produktuak, Stock Azokan; ordaindutako guztia ez bada ere, zati bat berreskuratu behar dutelako, fakturak ordaintzeko.

Hamabi partaide izango dira bihar eta etzi, Plaza Berriko Stock Azokan parte hartuko dutenak: Ilargi, Mahuka, Laket, Hiru, Balantxa, Valen, Hoki, Eukene, Dekolanak, Kuluska, Oinatz eta Ibaimendi. **K**

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**ILDEFONSO JUNTAS HERNANDEZ**  
- Goian bego -  
*Urak dakarrena, urak daroa  
baina zuk emandakoa  
gurekin gelditzen da.*

**ERICE ARRIZABALAGA SENDIA**  
**GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAITZAILEA** elizan, hileta egingo da.  
**Hernanin, 2020ko otsailaren 12an**

**ALFONSO DELGADO FLORES**  
Atzo hila zen Iruñan, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta  
- Goian bego -  
Anai-arrebak eta ilobak; Rada Barreiro, Munguia Rada eta Rada Otaegui familiak.  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPI T'ERDIETAN**, Burlatako **SAN BLAS** parroki elizan egingo den hiletara.  
OHARRA: Cazaila (Jaen)-ra BIHAR, OSTEGUNA, egingo da lekualdatzea Burlatako Irache Tanatorioetik. Telefonoa: 948 19 70 70  
**Burlatan, 2020ko otsailaren 12an**

### IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidal** c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu **943 31 86 06**.  
**LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidal** c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu **943 31 86 06**.  
**Espierientziadun neska euskaldunak goizetan lan egingo luke etxeak garbitzen, umeak edo helduak zaintzen... Deitu: 637 394 893**  
**Martxan dagoen okindegia alokagai. Interesatuak deitu: 644 319 054**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**Errugbi barneratzailearen aldeko bertso bazkaria**  
Bertsolariak **Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze**  
Eguna **Otsailak 16** Ordua **11:00**  
Sarrerak **35 €** [ipintza.eipintza.com](http://ipintza.eipintza.com) / 688.811.721